

## **APARTEKO OSOKO BILKURA**

**2014.05.13**

Tolosako Udaletxean, 2014ko maiatzaren 13an, arratsaldeko 7,30tan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ezohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Ibai Iriarte San Vicente, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 19:30 horas del día 13 de mayo de 2014, se reúne el Ayuntamiento Pleno, en Sesión Extraordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia del alcalde, Ibai Iriarte San Vicente, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relaciona:

Alkate-lehendakaria:

Ibai Iriarte San Vicente

Bertaratutako zinegotziak:

Lore Agirre Zipitria  
Hasier De los Rios Soraluze  
Igor Ezenarro Balda  
Pedro Manuel Etxabe Zabala  
Mikel Arreseigor Astibia  
Rosa Maria Urkola Irigoyen  
Jon Koldobika Arsuaga Artola

Jon Aldazabal Etxeberria  
Jokin Azkue Arrastoa  
Olatz Peon Ormazabal  
Nerea Letamendia Belloso  
Nuria Carbonell Miranda  
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez  
Jose Ignacio Asensio Bazterra

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Behin-behineko Kontuhartzailea

Paulino Alonso Eraso

### **Eguneko gai zerrenda:**

- |   |   |
|---|---|
| 1.-Tolosa Txukun-ek aurkeztutako mozioa, Tolosan Hondakinen bilketari buruzkoa. | 1.- Moción sobre la Recogida de Residuos en Tolosa, presentada por Tolosa Txukun.         |
| 2.- Udal Gobernuak aurkeztutako mozioa, Tolosan Hondakinen bilketari buruzkoa.  | 2.- Moción sobre la Recogida de Residuos en Tolosa, presentada por el equipo de Gobierno. |

3.-Tolosako hondakinen bilketa sistemaren aldaketa onartzea.

3.- Aprobación de la modificación del sistema de recogida de residuos en Tolosa.

Hasteko, Alkateak hitza hartu du adierazteko pozten dela Pleno Aretoa beteta ikustea eta gonbitea luzatu du beste gai garrantzitsuak tratatzen direnean etortzeko ere: *“Tolosako hondakinak biltzeko sistemaz hitz egingo dugu eta sistema berria onartuko dugu. Nahiko nituzke nabardura batzuk egin: azken finean gaur emango duguna ibilbide luze batean beste pauso bat besterik ez da eta ibilbidea oraindik oso luzea da. Urteak dira beira eta papera birziklatzeko edukiontziak jarri zirela. Ostean, edukiontzi edo ontzi arinak biltzeko edukiontzi horia, olioak, arropak eta pilak biltzeko ere. Momentu honetan organikoa eta errefusa berezi nahiko lirateke. Legeak horrela dio; alde batetik, 2016an Europar Batasunak %60 birziklatzea eskatzen duelako, hori da 2020rako birziklagarriak diren hondakinak ez erraustea agintzen duelako ere Europar Batasunak. Gipuzkoako Foru Aldundiak hartu zuen erabakia errauskailua ez egitearena eta, ondorioz, Udalok hartzen dugu ardura %60 birziklatzeko tasetara iristeko. Horretarako, helburu hori duen sistema bat ahalbidetu behar da. Legeak hala dio, baina badugu erantzukizun moral bat etorkizuneko belaunaldiekin; mundu eta errekurtsio finituen mundu batean bizi gara eta errekurtsio hauek kudeatu egin behar ditugu. Helburu hauek betetzeko Udalak obligazioa dauka bitarteko guztiak jartzeko, baliabideak jartzeko, gertu eta errez egin ahal izatea ahalbidetzea, eta horretarako birziklatze tailerrak martxan jarriko dira, aldizkariak gutunontzietan sartuko dira, hondakin bulego bat martxan jarriko da eta erraztasun guztiak jarriko dira, argi eta garbi dugulako herritarrak ondo egin ahal izateko administrazio publikoak bitartekoak jarri beharko dituela. Beraz, lasaitasun mezu bat zabaldu nahiko nuke, hau ondo egingo dugulako eta, ondo egiteaz aparte, eredu izango garelako.”*

Jarraian saioari nola ekingo zaion adierazi du, honela: lehengo Idazkariak gaizerrendako bi mozioak irakurriko ditu eta debatare ekingo zaio. Gero, bi mozioak berriz irakurri ondoren, bozketara jarrito dira.

Amaitzeko hirugarren puntuari ekingo zaio.

Bi mozioak, puntuz-puntu bozkatu ahal izateko, Alkateak, ohi den bezala, Tolosa Txukun taldeko ordezkariari onarpena eskatu dio eta honek ezezkoa eman dio. Beraz, lehenengo mozioa bere osotasunean bozkatuko da eta bigarrena, puntuz puntu.

Alkatearen adierazpena amaitu ondoren, Idazkariak bi mozioak irakurri ditu eta debatare hasiera eman zaio.

Parte hartzeak:

... Hasier De Los Rios Soraluze, Bildu: “Gaur pleno honetan aipatu den bezala eta esku artean dugun gaiaren inguruan, esan behar dugu martxan jarriko dugun sistema Tolosarrengan dugun konfiantzan oinarritzen dela; zinez sinisten dugu ondo egingo dugula, zinez sinisten dugu Tolosarrak birziklatzearen alde gaudela. Gaur ez diogu arazo bati bukaera ematen, sistemarekin ez da arazoa konpontzen, arazoa hor dago, kontsumoan oinarritutako sisteman bizi gara, eta hori arazo bat da eta horiei egin behar diogu aurre, sortzen dugun hondakina da gutxitu behar duguna, eta gaika bildu behar dugu ahalik eta gehiena. Atzo Manuel Tohariak, Naturaldian, berdina esaten zigun.

Sistemaren baitan hiru gai aipatu nahiko nituzke. Hondakin mahaiaren baitan egindako ibilbidea, sistema eta plangintza.

Ibilbidea: 2012ko martxotik 2012ko ekainera Hondakinen Mahaia sortu eta bilerak egin genituen, gaiari buruzko informazio teknikoa bildu eta elkar banatu genuelarik, herriko eragile desberdinekin. 2012ko uztailaren 23ko osoko bilkuran onartu zen ikerketa egitea hondakinen bilketa eredia aukeratzeko laguntzeko. 2013ko martxoaren 4ko Hondakinen Jarraipen Batzordean azterketa kontratatzeko pleguen oinarriak adostu ziren gehiengoz. Plegu hauekin denok geunden ados, PSEE-PSOE izan ezik. Nahiz eta gero Mahaia utzi zuten EAJ, Tolosa Txukunek eta PSEE-PSOEek. Plegu horretan honakoa eskatzen genuen:

- Hiri-hondakinen sorkuntza ahalik eta gehien gutxitzea.
- Gaika ahalik eta zatirik handiena biltzea: ezartzeko momentuan sistemak helburu bezala izango du % 60-70 bitarteko gaikako bilketa eta, bi urteren epean, % 75-80ra iristeko aukera eman behar du.
- Gaika bildutakoa kalitate onekoa izatea.
- Errefusa ahalik eta gehien minimizatzea.
- Ereduak Tolosako udalerriko auzoen izaera eta nortasuna oso kontuan hartzea: udalerraren hedadura, kasu egin beharreko biztanleak, hirigintza-tipologia, biztanledentsitatea, egungo azpiegiturak eta baliabideak berrerabiltzea, inpaktu ekonomikoa, garraioa eta bestelako jasangarritasun-faktoreak, bilketa-sistemetan eta ohituretan aldaketak sartzeko udalerrri mailan egon litezkeen aurkako edo aldeko jarrerak, gizarteratzea-ahalegina, eta abar.
- Jasangarritasunerako bestelako faktoreak kontuan hartzea: bizitza-zikloa, CO2 emisioak, etab.
- Gaikako bilketa herritar guztien ardura eta betebeharra izatea.
- Gaur eguneko egoera, bilketa maila, azpiegiturak eta herritarren ohiturak kontutan izango ditu.

Irizpide hauek oinarritzat hartuz IDEMA enpresak egin du ikerketa lana.

Udal gobernuaren helburu izan da eta izango du: alderdi eta eragile guztiekin adostasunaren eta akordioetara iristea, nahiz eta jakin ez dela izango posible.

Akordio horrek bazituen gutxieneko baldintzak: (bat eginez gehiengoz pleguaren oinarrietan adostutakoarekin).

- Europak eskatutako gutxieneko birziklatze datuetara iristea (%60 - %70).
- Fiskalizagarria izatea.
- Derrigorrezkoa izatea, norberaren etxean egin behar delarik hondakinen sailkatzea.
- Sortzaile bereziei modu berezituaren biltzea.

Guztiarekin nahiz eta ados egon alderdi eta eragile guztiok, hondakinak uzteko sistemarekin genuen arazoa.

Guztion gutxieneko guztiak betez, organikoa eta errefusa ahalik eta modu indibidualizatuenean eta edukiontzi bidez biltzeko sistema proposatu da.

Hondakinak biltzeko sistema: edukiontzi bidezko bilketa sistema berritzailearen ardatzak.

- Gaur egungo guneak osatu eta beste batzuk gehituko dira 60 puntu osatu arte (ontzi arinak, beira, papera eta kartoiarentzat), beste edukiontzi bat (240 litrokoa) jarriko da pixoihal eta konpresentzat, itxitura sistemarekin, erabiltzaileak egunero ireki ahal izango du bere edukiontzia eta egungo edukiontzi berdeak kenduko dira.
- Organikoarentzat, hirian zehar banatuta, 150 pertsonentzako edukiontzi bat jarriko da (240 L) – astean 3tan aterata ahal izango dute organikoa –txartel bidez ireki ahal izango du erabiltzaile bakoitzak bere edukiontzia.
- Bestalde, autokonposta zein auzokonposta sustatzen jarraituko dugu.
- Errefusarentzat, hirian zehar banatuta, 150 pertsonentzako edukiontzi bat jarriko da (2040 L) – astean behin aterata ahal izango dute errefusa – txartel bidez ireki ahal izango du erabiltzaile bakoitzak bere edukiontzia.
- Sortzaile Bereziak: bilketa independentea eta indibidualizatua izango dute. Zuzenean eurengandik jasotako informazioarekin, horretarako lanean daude bi hezitzaile informazioa eskuratzen eta zalantzak argitzen, egutegi bat osatuko da eta honen arabera hondakinak gaika bilduko dira; organikoa eta errefusa biltzeko kuboak banatuko zaizkie.
- Landa eremuak: materia organikoa kudeatzeko autokonpostajea sustatu da eta sustatzen jarraituko da. Bideetan zehar banatutako edukiontzi berdeak kendu dira eta gaika biltzeko edukiontzi osatutako bateriak indartu dira.

Honela esan, hondakinen gaikako bilketa sistema berria irailean martxan jarri aurretik, herritarrekin egon nahi dugula. Tolosara egokitutako hondakinak biltzeko edukiontzi bidezko eredua zalduko dugu auzoz auzo egingo diren bileretan eta herritarrei beharrezko informazio guztia eskaintzea da gure asmoa.

Datozen asteetan ekingo diogu gizarteratze prozesu honi, edo datorrean astean hasita. Helburu, sistema berria jartzerako informazioa ematea eta, era berean, herritarren ekarpen eta proposamenak jasotzea da.

Herritarrekin auzokako bileretan elkartzeaz gain, herriko sektore desberdinekin ere bildu gara. Komertzio, edaritegi, jatetxe eta bestelako sortzaileekin, plangintzaren baitan, iadanik egin ditugu bilerak, eta maiatzaren 19tik 29ra herritarrentzako batzarrak ere egingo ditugu:

- 19an, Izaskun auzoan, EPAren eraikinean, 19:00retan.
- 20an, Kultur etxean, 18:30ean, Hirigunean; eta 20:00retan, Alde Zaharrean.
- 21ean, Amarotzen, auzo etxean; 22an San Esteban auzoan, auzo elkartean; 26an, Laramendi auzoan, Arkauten; eta 29an, Berazubi auzoan, Paper Eskolan. Azken lau hauek 19:00etan egingo ditugu.

*Plangintzarekin jarraituz, etxez etxe eskuorriak banatuko dira, birziklatze tailerrak eta prebentzio kanpainak jarriko dira martxan, eta bulegoa irekiko da Musika eskolan. Hondakinen mahaia 4 aldiz bilduko da urtean, hiru hilabete behin, eta ez da nahi bakarrik jorratzea hondakinen sistema ondo doan, baizik eta prebentzio kanpaina eta prebentzioa sustatu nahi ditugu.”*

*...Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Aralar: “Duela bi urte pasatxo hasi ginen etxeko hondakin solidoen bilketaz hitz egiten udaletxean ordezkariak dugun indar politikoen artean. Oker ez banago, denok aipatu genuen gaia modu batean edo bestean 2011ko hauteskundeetako programan.*

*Aralarreko ki ezka piztu zitzaigun 2012ko urte hasieran ikusi genuelako zaborren bilketaren inguruan posizio hartze tinkoak gertatzen hasi zirela eta tentsioa sortzen ari zela gure probintzian. Ez zitzaigun egoera hori egokiena iruditu Tolosako zabor-bilketaz patxadaz eta zentzuz eztabaidatzeko. Horregatik udaleko gainerako indar politikoekin bitariko bilerak egiteari ekin genion. Tolosan zabor-bilketarako modu berriaren eztabaidan ahalik eta tentsiorik txikienarekin eta adostasunik handienarekin egin ahal izatea izan zen gure helburua.*

*Elkarrizketa horien ondorio izan ziren herriko eragileek jorratutako gogoeta- eta informazio-prozesua. Gero etorri zen 2012ko uztailaren 23ko osoko bilkura non udalaren gobernuaren botoekin bilketa-helburuak eta erabakia hartzeko metodologia ezarri ziren.*

*Zaborren mahaia izan zen guzti horren ondorio praktikoa.*

*Prozesu honi guztiari ekin genionean Aralarreko ki argi genuen edozein izanik ere Tolosan erabiliko genukeen zaborrak gaika biltzeko sistema, horrek herritarren adostasunik zabalena lortzeko modukoa izan behar zuela eta herritarrengan ez zuela aparteko kezkarik eragin behar, beti ere, gaikako bilketarako helburu egokiak lortzea ahalbidetzeko modukoa izanik.*

*Iruditzen zaigun udal gobernuak planteatu duen zaborrak biltzeko sistemak bi ezaugarri horiek betetzen dituela: gehienon adostasunik biltzeko modukoa da eta herritarren bi ezka nagusiak, zintzilikarioak eta intimitatea alegia, gainditzen ditu.*

*Zaborren arazoan Tolosa ditugun bi gizarte-mugimendu nagusiek ere, Tolosa Txukunek eta Zero Zaborrek, ontzat jo zuten joan den asteko Zaborren Mahaian gobernu batzordearen proposamena. Bakoitzak bere ikuspegitik, biek azaldu zituzten proposatutako sistemak sortzen dizkien kezkak. Naturala eta ona da hori. Hala ere, sistemak arrakasta izan dadin lan egiteko konpromisoa hartu zuten biek. Estimaten diegu prestutasuna!*

*Alabaina, kontuan izanik Patxi Amantegik 28 kanalean eginiko adierazpenak eta joan den asteko zaborren mahaian adierazitakoa ez dugu entenditzen Tolosa Txukunek, Patxi sinatuta, ekarri duen mozioaren arrazoia. Uler genezake, beren ezka azaltzeko dokumentu bezala ekarri eta osoko bilkura honetan irakurri izan balute. Eskubide osoa dute eta, gainera, estimatzekoa da ezka horiek azaltzea udal gobernu honek proposatzen duena hobetzeko balio dezakeelako. Patxi bere azalpenean kontraesan hori azalduko digula espero dut.*

*Adostasunik biltzeko hasierako posizioetatik mugitu egin behar da. Adostasuna ez da lortzen esanez ‘etorri zuek nire posizioa’; hasierako posizioak aldatuz guztiontzat balekoa izan daitekeen posizio berria bilatuz baizik.*

*Batzuk mugitu egin gara.*

*Aralar mugitu egin da. Ez da proposatutako sistema prozesua hasi zenean defendatzen genuen bilketa-sistema, Itsasondoko sistemaren bidetik jotzea ikusten genuen egokien. Bi urteko prozesuaren ondorioz beste aukera batzuk ere egokituz jotzera iritsi gara gure gogoetan. Udal gobernua proposatu duena ez zen, prezisamente, gure lehen aukera. Hala ere, konponbide egokira iritsi garela uste dugu.*

*Bilduko gure gobernukideak dira, seguruenik, prozesu honetan guztietan hasierako planteamendutik gehien mugitu direnak. Eskertzen diegu, zinez, jarrera hori eta adostasunean aritzeko egin duten ahalegina.*

*Prentsan leitutakoari jaramon egiten badiogu, oposizioko taldeek aurkako botoa emango dute.*

*Koherentetzat jo dezakegu PSEren jarrera, kieto-geldi egon baita posizio berean prozesuaren hasieratik bertatik. Koherentzia gehiegi ez ote bilaka daiteke inkoherentzia?*

*EAJ ere, onar dezagun, mugitu egin da. Hasierako bileretan gaika biltzearen derrigortasuna eta kontrola zalantzan jartzen zituen. Orain onartu egiten ditu, aldiz. Hala ere, ezin ontzat jo gobernua proposamena edukiontzien tamaina medio! Hori baita, itxura batean, EAJK defenditzen duen bilketa-metodotik desberdina den gauza bakarra. Penaz esan behar dut, iruditzen zaidala pose politikoa herritarren ongizateari gainditu egin zaiola.*

*Bukatzeko azpimarratu beharra dago prozesu honek guztiak, Tolosaldeko herrietan bizi izan direnak eta piztu duten eztabaida herritarren kontzientziak astintzeko balio izan duela. Gaur tolosarrek inoiz baino argiagoa dute zaborren kudeaketa egokia ezinbestekoa dela eta denon ardura dela; hortaz, zaborrak gaika sailkatzea eta botatzea ezinbestekoa dela. Horregatik guztiagatik eta gizarte-eragileek agertu duten prestutasunarengatik proposatzen den bilketa-metodoak arrakasta izango duela uste dugu jarritako helburuak beteko baitu eta Tolosa aitzindaria izango dela.”*

... Jose Ignacio Asensio Bazterra, PSE-EE: *“Gu beti bosgarren edukiontzia alde azaldu gara. Siempre nos hemos mostrado a favor del quinto contenedor como el mejor sistema de recogida de basuras para Tolosa. Yo no hubiera calificado de inadecuado el sistema propuesto, sino de algo más fuerte.*

*Beti esan dugu, gauza bat dela nola jasotzen den edo nola biltzen den zaborra eta nola birziklatzen den edo zer baliabide behar ditugun birziklatzeko. Esaten duzue Gipuzkoako Foru Aldundiak hartutako erabakien ondorioz Gipuzkoak ez duela errauskailurik izango. Noski! Zuen proposamenean argi utzi zenuten, 2015eko ez badira zenbait helburu lortzen, atez ateko sistema ezarriko zenutela. Orduan, eta ikusirik zer nolako hitzak esan dituen Alkateak, esan duzu nolabait ibilbidea luzea dela eta, noski, hau beste pausu bat da. Ez dakit non bukatuko dugun, baina, zuen esku badago, badakigu non bukatuko dugun.*

*La población de Tolosa se ha manifestado abiertamente y ha mostrado a través de las firmas de Tolosa Txukun cuál es su parecer. Hay 7.000 firmantes que apoyan esta postura. Una postura absolutamente razonable y que, además, aprovecha los medios que tenemos: montar el quinto contenedor y darle salida, no solamente a la recogida selectiva de basura, sino a las infraestructuras que ya tenemos. Plantear un sistema del tipo que plantea Bildu es irrazonable cuando no hay un informe técnico que lo avale. La información económica que nos habéisi dado es absolutamente incompleta. Se habla de lo que se invertirá en los cubitos o mini*

*contenedores, pero no todo lo que va a conllevar este sistema. Por tanto, voy a votar a favor de la moción de Tolosa Txukun y votar en contra de la propuesta del Gobierno.”*

... Olatz Peon Ormazabal, EAJ/PNV: *“Guk bosgarren edukiontzia-aren ereduaren aldeko hautua egin dugu eta Tolosa Txukun plataformak aurkeztutako mozioarekin bat egingo dugu. Zoriondu nahiko nuke Plataforma, honek sortu duela eztabaidarako gune bat. Gizarte mugimendu askotan garrantzitsua izaten da zer egiten den, baina are eta garrantzitsuagoa izaten da batzutan nola egiten diren gauzak. 7000 sinadura, sinadura asko dira, hemen eserita gauden alderdi politiko guztien ordezkariak baino handiagoa da eta norbaitek errespetua merezi badu areto honetan, gaur, Plataforma bera da. Nik gauza bat gogorazi nahiko nuke: 2012ko martxoan EAJ-ak kontsulta bat egiteko mozio bat sartu zuen udal areto honetan eta ez zen onartu. Gogora ekarriko ditut Ibai Iriarte Alkatearen hitz batzuk. Tolosako web orrian daude, ez inon ezkutatuta, Larramendiko kontsulta egin zirenekoak dira”:*

*“Gure ustez, kontsulta herritarren iritzia eta nahiak zuzenean ezagutzeko modu bat da. Hala ere, sinistu izan dugu egokiagoa dela adostasunak lortzea kontsultak egitea baino. Kontsultak, normalean, adostasunik ez dagoen kasuetan ematen dira. Gobernu honentzat herritarren hitza oso garrantzitsua da, horregatik ez dugu baztertzeko beste gaietan kontsultara deitzea. Baina argi dugu ere, elkarrekin eraikitzea, konsensuak lortzea eta lortzea dela gure lehentasuna”.*

*Honi buruz, Olatz Peon-ek honela dio: “Buena ba, hondakinen kasu honetan, hainbeste ardua izan dena herritarren artean, ez adostasunik, ez eztabaidarako gogorik, ez kontsultarik, ez ezer. Ezta bat bera ere ez”.*

Gobernu taldeak aurkeztutako mozioari buruz ondorengoak esan ditu: *“Komentatu nahiko nuke proposamenak proposatzen duena, ardua asko ematen digulako. Lehenengo puntuarekin erabat ados gaude, hondakinak baliabide gisa kudeatu behar dira. Hemen argi dago denok gaudela birziklapenaren alde eta erabakitzen ari garena da hondakinak biltzeko sistemaz. Bigarren puntuan, errefusa eta organikoa kontrolatuta jasoko dela esaten da, baina ez da ondo esaten nola, eta horrek jendearengan ardua sorrarazten du. Muturreko erabakiak askotan muturreko ondorioak ekartzen ditu. Nik esango nuke pertsonaren duintasunaren kontrako erabaki bat dela dudarik gabe. Hirugarren puntuan, sistema aldiro ikuskatuko dela esaten duzue eta, horrela ez balitz, beharrezko hobekuntzak eta aldaketak egingo liratekeela. Adostasuneko dokumentuan komentatzen zenuten zuek proposatutako portzentaia horretara iritsiko ez bagina, atez ateko sistema jarriko zenuketeela. Ez dakit hori esan nahi duzuen ala ez baina hori horrela bada, komeniko litzateke jartzea. Laugarren puntuan esaten duzue dendari eta ostalariekin bilketa berezia egingo dela, bereiztua. Oraintxe esplikatzen duzue. Gainera erabaki duten egutegia. Dendariekin eta ostalariekin bilerak egin dituzute Plenoaren aurretik. Orduan, zertarako balio du pleno honek? Zer errespetu diozue pleno honi? Ez baldin bada sistema oraindik onartu, hori kalean dabilen bi hezitzaile horiek, nor kontratu ditu? Nolako prozedura bitartez? Zenbat denborarako? Zertarako? Horiek denak aurretik esaten dira. Sorkuntzaren araberako ordainketari dagokionez, hori printzipio orokor bat da, “pago por generación” esaten dena; printzipio bezala oso ondo dago, baina printzipioak jartzen direnean, jarri behar da baita ere horren gauzapean zer esan nahi duen eta egoera erreal batean horrek Tolosako herritar bati zer suposatzen dion. Udalak zerbitzu asko ditu ez direnak herritarren ordainketarekin estaltzen. Hemen esaten duzuenean “pago por generación”, zabor gehiago ateratzen duenak edo gaizki sailkatzen duenak edo, zer da esaten ari garena? Hori ere zehaztu beharko litzateke. Familia ugarien kasuan, ez da nire kasua delako, baino badira natalidadea bultzatzeko politikak eta orduan hobariak ematen dira; orduan zer egingo dugu? Alde batetik inzentibatuta eta beste alde batetik penatu? Herritarra ez da erruduna. Gauzak planteatzen diren bitartean ematen du herritarrak garelako errudunak, eta ez da hori. Egituratu dugu gizarte bat, non*

*hondakinak arazo inportante bat dena, eta horri buelta bat eman behar diogu. Landa auzoan asko arduratzen duen gaia da. Jartzen duzue sustatuko duzuela auzokonposta eta autokonposta, baina autokonposta aspaldi hasi zen, ez da oraingoa. Ez dakit landa eremuko bizilagunekin hitz egin duzuen ala ez, bileraren aktak ez zaizkigulako iristen. Seigarren puntuari dagokionez, bilketa sistema berri bat onartu behar dugu jakin gabe ze kostatua izango duen. Guk kalkulu batzuk egin ditugu eta gaur egungo tasa bikoiztuko litzateke. Horrek esan nahi du urtero %20 bat igo egingo litzatekeela. Kontua da, eta ezin da onartu, herritarren poltsikotik aterako dela zuzenean jakin gabe ze kopuruz ari garen hitz egiten. Gu oposizioan gaude, oposizioan gaudenak fiskalitate papera egin behar dugu, eta horretarako informazioa behar dugu. Ez zaigu paper bat bera ere iristen; inkreiblea da. Badauzkagu hamahiru galdera eta bidali genituen orain dela asko Makomunitatera. 2013ko aurrekontua bidali ziguten, baina likidazioa ez. 2014ko aurrekontuan ez dakigu zer fiskalitate erabaki duten. Ez dakigu ze kontratu egin diren Esporakin, Garbitaniarekin, noiz, zer prozedura bitartez, zenbat denborarako; ideiarik ez daukagu. Orduan, daturik gabe, fiskalitate oposizio paper hori egitea zaila da. Orain, sistema presentatzen duzuen momentuan jartzen duzuen txostena inplantaziorako 286.624 eurokoa da, baina horiek dira kuboak, txipak, poltxak eta edukiontziak. IDEMAko txostena daukagu, 18.000 euro kostatu zaiguna. Tolosan zenbat garestituko den esan beharko litzateke. Villabonan, adibidez, lau aldiz handitu da gastua.*

*2012ko otsailaren 22an, Bildu alderdiak prentsaurreko bat ematen du eta esaten du 34 herrietan atez ateko sistema onartuko duela, tartean Tolosa. Hemen, Tolosan, Ingurugiroko teknikaria kontratatzen da eta txostenean esaten da derrigorrezkoa dela kontratazio hori atez ateko eredia jarri behar delako Tolosan. Mankomunitatean, inoiz egon ez dena, politikariaren figura sortzen da jornada osoz.*

*Guk hondakinen inguruko informazio guztia pasatzeko batzorde bat sortzea eskatu genuen. Zer gertatzen da? Mahai horretan hasten garenean, informazio hori eskatzean, ez digute ematen. Garai hartan, eskualdeko beste herri batzuetan (Villabona, Irura, Anoeta) hasten dira atez ateko sistema jartzen eta guk eskatzen dugu, eta nahi dugu ikusi, horrek Tolosari nola eragiten dion, eta ez zaigu erantzuten. Gero erabaki horiek irakurtzen ditugu prentsan. Horregatik altxatzen gara mahai horretatik.*

*Egon zen adostasunerako bilera bat halako batean. Alkateak deitu zigun, eta, egia esan, eskertu genion. Adostasunerako bilera bat zegoen. Gure sorpresa izan zen, bezperan, Ainhoa Beolak, Sortuko bozeramailea Gipuzkoan, non ETBko debate batean, esaten zuen bazegoela Tolosan hondakinen inguruko horrelako adostasun bat. Gure sorpresa haundiagoa izan zen bilerara iritsi eta zuen postura izan zenean, proposamena mahai gainean jarri eta gero, -nahi baldin baduzute gurekin onartu dezute eta nahi ez baldin badezute, ez-; edo trenera igotzen zarete edo estazioan geratzen zarete. Han ez zegoen adostasunarekiko biderik egon. Nik Ainhoa Beolaren hitz horiek interpretatzen ditut honela: adostasuna zuek zuen artean hartu zenutela. Gurekin ez behintzat! Badakigu zenbat balio duten kuboak, badakigu zenbat balio duten poltxak, baina ez dakigu bilketak zenbat balio duen edo kamioiak edo..., fiskalitateko txostenik gabe. Badakigu eskualdean hiru fiskalitate egongo direla, baina Udal honetan inon ere ez da ezer ere ez esplikatatu. Esanguratsuak iruditzen zaizkit Ainhoa Etxeberriaren hitzak batzorde horretan, eta jasota daude aktan: "Lehenengo aldia da gai hau batzorde honetatik pasatzen dela". Amaitzeko zenbait puntu garbi esan nahi ditut: gaur hemen eztabaidan dagoena herritarrari eman beharreko zerbitzua da. Udalak zaborra modu egokian jasotzeko betebeharra du, ahaztu gabe Udala dela herritarraren zerbitzura dagoena eta ez alderantziz. Bilketa maiztasuna herritarren beharretara egokitu behar da eta ez alderantziz. Aplikatu nahi diren aldaketa guztiak izango duten ondorio ekonomikoa jakiteko eskubidea du herritarrak. Saillapena ondo egiten den jakiteko herritarren hondakinak arakatzea ez da zilegi, Bilduk bere irizpide ideologikoak pertsonen gaintik jarri ditu. Herri honetako gizon-emakumeek bere*



ordezkariengatik beste jarrera bat merezi dute. Horregatik, eskatzen dugu mozio hau mahai gainean uztea.”

... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea: “Udal honek eta udal gobernu honek 2012an hasi zuen, aipatua izan den bezala batzuegandik eta besteegandik, kontzentsu batera iristeko, prestotasunez eta adostasunez, Ibilbide Orri bat. Ibilbide Orri hori pleno batean adostu zen eta pleno horretan hondakin mahiak deituak izan direnak sortu ziren. Hondakinaren gaian lehenengo zeregina politikariak eta erabakiak hartu behar zutenak, informatzean zetzan. Horregatik, lehenengo fasean adituak ekarri ziren. Zertarako? Ez jakintasunetik hitz egiteko, baizik eta pixka bat ikastea ondo etortzen zaigulako denori. Bigarren fasean, ikerketarako oinarriak ezarri ziren, hau da, Tolosarako egokitutako sistema hori mahaia teknikoan egin ahal izateko oinarriak ezarri nahi ziren. Politikoez azkeneko erabakia hartu behar dugu, baina teknikariak dira hemen lan egin behar dutenak. Guk helburuak ezartzen ditugu eta beraiek bidea zein den esaten digute. Hondakinaren mahaian denok, PSEE-PSOEek izan ezik, onartu genuen %60-70era iristeko sistema bat. Ikerketa berak proposatzen zuen malgutasun bat egon zitekeela sistemak konbinatuz. Horregatik, Udal gobernuak proposatzen zuena, proposatzen duena eta proposatuko duena hemen mahai gainean dagoena da; sistema malgu bat. Proposamen honetan denok eroso sentitzea ahalbidetu nahi genuen; alde batetik, helburuak betetzea eta, beste aldetik, sentitzen genuen adostasuna lortu behar genuela. Zentzu horretan edukiontzietan oinarritutako sistema ezartzen genuen eta edukiontzia ahalbideratu behar zigun %60ra birziklatzea.

Akordioetara iristea badago, baina ulertzen dut akordiotarako iristeko aukerarik ez badago, Udalak bere gehiengoa albiderratu behar duela. Bide guztiak irekitzen bi urte eta erdi egon gara. Bestalde, bide propioa egin du Tolosako udalak. Beste eskualdeko herri batzuek, Gipuzkoako zein Nafarroko beste herri batzuekin -Italia, Katalunia, Europa eta Ipar aldeko proposamen batzuk edo sistema batzuk- atez atekoa planteatu dute. Tolosa baino gehiago birziklatuko dute. Sistema kontrastatua dute. Tolosak bide propioa egitea erabaki zuen, argi zuelako lehentasuna ematea adostasunari, eta ez zuela merezi herritarren arteko konfrontazioa. Ez dugu nahi gatazka batean sustatuko sistema bat ezarri egoskortu garelako. Horri lotuz, nahiko nuke aipatu beste gauza bat: azkeneko hiru urteetan entzun diot PSEE-PSOEko ordezkariari, eta aktan jartzen du, Udal honek erabakia hartua zuela -“y esto es la crónica de una imposición anunciada a plazos”- eta, orain, aktan geratu dadila: Ez, ez, Tolosan ez da ezarriko atez ateko bidez txintxilari hori bidezko sistema bat, argiago ezin dut esan, ez. Gertatzen dena da gezur bat mila aldiz errepikatuz, badirudiela egia dela. Ezetz. Ez dut esaten gezurrik, Jarri beharreko bitarteko guztiak jarriko ditugu -EAJ/PNVri zuzenduta-; gerturatuko gara herritarrei, egingo dira birziklatze tailerrak, gerturatuko gara sistemaren ezartzea nola egin behar den. Bildurrak uxatu behar ditugu.

Lehen aipatu dut bi erantzukizun ditugula; bat, legala-juridikoa eta, bestea, etiko-moralak. Herritarrek birziklatu nahi du eta horretarako medioak jarriko dira. Beraz, ongi egingo dugu eta hori ikusiko da. Lasaitasun mezu bat nahi dut zabaldu. Gertu egongo da Udala, gertu egongo da Administrazio Lokala. Hondakinaren bulegoa ezarriko da Musika Eskolan hilaren 19tik aurrera. Auzoetara gerturatuko gara, gidak banatuko dira, beharra duenari etxean lagunduko zaio, jarri beharreko guztia jarriko da. Ez gara lehenengoak, beraz, ekin diezaiogun beldurrik gabe. Baina horretarako, guk, herritarren borondate eta herritarren bozeramaile garenok, bildurraren diskurtsoarekin ez goaz inora eta, berriro errepikatuko dut, ez ezazue jarri nire ahoan ez dauden hitzak. Horrekin lotuta, gezurraren diskurtsoan, nik Tolosa Txukunek aurkeztutako mozioan irakurri ditut gauza batzuk eta harritzen naute beste batzuk, 28 kanalean ikusita, adostasuna erakusten zenutelako, plataforma gisara, Udal Gobernuak egiten zuen proposamenari eta hondakin mahaian berretsi egin zenuten hori. Nik hondakin mahaian ez

nago. Beraz, ezin dut esan hori, 28 kanaleoa. Denok, askok, hemen gaudenok, ikusiko genuen. Nik ikusi nuen. Berresten zenuten eta, orain, mozioa hau ez dut ulertzen. Ulertzen dut modu batera; desgaste politikoa. Iruditzen zait ez dela zilegi eta gai honek argi eta garbi utzi duela politikarien alderdikeria, zatirik ilunena, nik ezagutzen ez nuena. Orain ezagutu dut eta ulertzen dut zergaitik jendea nazkatuta dagoen politikoez. Mozioari eutsiz, nik proposatu nahi nuen Tolosa Txukun plataformaren mozioa puntuz-puntu bozkatzea, badaudelako puntu batzuk ados egongo ginatekeenak. Hori zuen esku egongo litzateke. Sarreran badaude gauza batzuk ez direnak horrela, "compra de camiones"; ez da azpiegitura berririk erosten, ez da kamioirik erosten. Agian informazio falta da, baino ez da erosten. Hitz egiten zaigu auzokonpostaren alde gaudela eta jarraitu behar dugula; noski baietz, baina hemen argi dugu denok birziklatu behar dugula eta denon eginbeharra dela. Hortan ados gaude. Beraz, Tolosa Txukuneko mozioan kenduko balitz sarrerakoa eta puntuz puntu bozkatu, guk zenbait punturi baiezkoa emango diegu; bestela abstenitu egingo gara. "Pago por generación" esaten dugunean planteatzen duguna da sistemak ahalbideratu egin behar duela epe ertainean hori egitea eta "pago por alzado" litzateke, San Marcoseko mankomunitateak aplikatzen duena industrial guneetan, hori bideratuko lukeena. Esan, Denis Itxaso dela PSEko burua hori martxan jarri duena. Berdina planteatzen dugu. Esaten zenuen -EAJri zuzenduta- herritarrak ez direla errudunak. Noski herritarrak ez direla errudunak! Baina arduradunak bai, eta ardura nagusia Administrazioak du.

Eta orain bozketara pasa aurretik, Tolosa Txukun eta Zero zabor eragileei hitza emango zaie. Denek hitza hartzeko eskubidea dute, baina eragileei mugatuko nieke parte hartzea, saioa bidegarria egiteko. Hala ere, alderdiei hitza emango diet parte hartu nahi badute eta gero eragilei emango nieke. Amaitzeko, berriz alderdien ronda irekiko nuke, txikienetik handienera."

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Aralar: "PSEE-PSOEren eta EAJ/PNVren arrazoiak entzun eta gero, hainbat komentario egin behar ditut: PSEE-PSOEri - konstituzioa ematen duzu, beti berdin, erabakia hartuta dagoela esaten ari zara hasiera hasieratik. Ez dugu ikusi adostasunerako borondaterik. Adostasuna, edo zuen eran egiten da, edo ez da egiten. Hori da nik kontrastatu dudana prozesu guzti honetan. EAJ/PNVri - zuena pose politikoa da, ez dut besterik ikusten; pixoihalarenak, kosteenak, sortzearenetikiko ordainketarena, fiskalitatearen kontu horiek, berdin berdin aplika dakioke zuek defendatzen duzuen bosgarren edukiontzia sistemari. Inkognita berdintsuak dira. Egoera berdinean gaude. Ordainketa tasak berdindu egin behar direla? Kostuak, hori begiratu beharko genuke Ogasun batzordean. Jarraitzen dut esaten pose bat dela. Ez dut beste arrazoirik ikusten. Ulertzen dut urtebete falta dela hauteskuntetarako eta posizio politikoak eta diferentziak markatu behar direla. Hori zilegi da. Ez dut ikusi EAJ/PNVn borondaterik adostasunera iristeko, bestela iritxiko ginakeen. Aipatu dituzuen kezka guzti horiek (pixoihalak...), jakina! Baina horiek detaileak dira eta detaile horiek pulitu egiten dira borondatea eta gogoia badago. Pentsatzen dut iritxi gaitezkeela akordio zabal batera. Garbi neukan PSEE-PSOErekin ez zegoela modurik hasiera-hasieratik, baina pentsatzen nuen behintzat hemen hamazazpi zinegotzitik hamasei honen alde egingo genuela. Ez da posible izango, baina bakoitzak ikusiko du zergaitik, bakoitzak hartuko ditu bere lanean dituen ardurak."

... Jose Ignacio Asensio Bazterra, PSEE-POSE: "Gu ez garela mugitu esan duzue. Zuek mugitu zarete, baina zergaitik mugitu zarete? Gose politikoa. Besteek daukate gose politikoa, zuek ez, zuek ez duzue gose politikorik, horregatik mugitu zarete. Alkateari esan, sentitzen dudala, ikararen diskurtsoa zuen proposamenean azpimarratzeagatik. Zuen proposamenean hau adierazten da: "Bilketa sistema honek ezaugarri hauek izango ditu: Bederatzigarren puntua; sistema berria ezarri eta edukitu ostean hau betearazteko jarraipena egingo da. Isunetara iritxi aurretik aukera desberdinak landuz. Jarritako helburuak betetzen ez badira 2015eko abenduan,

atez ateko sistema bat ezartzeko konpromisoa hartzen da.” Zuek esan duzue eta idatzita utzi duzue. Ze, gezurra? Idatzita dago. Orain ez duzuela ekarri? Baina hemen dago abixua, hemen idatzita, nik ez dut ezer asmatu. Por lo tanto, si las cosas se presentan por escrito, evidentemente no hay más que leerlo para saber qué quieren decir las cosas, con fecha y la decisión adoptada. Comentar el documento que se presento en la última Comisión de Medio Ambiente; hay que ir con esos documentos a prestar un dictamen! Yo les daría a todos los ciudadanos la opción de leerse el informe técnico que se presentó. Del informe económico no voy hablar, porque al final lo único que del mismo se concluye sí hay partida presupuestaria o no para llevar a cabo la propuesta presentada, y a continuación se dictamina. En el informe técnico habla de estadísticas; cuál es la población con mayor tasa de recogida selectiva? Legazpi. En Legazpi cuando se le ha dado opción a los ciudadanos, qué han elegido? Qué han elegido cuando se les ha dado la opción? La tasa mas alta de recogida selectiva. Hay que dar opciones a los ciudadanos, que ya son mayorcitos. En fin, ez dakit. Ez garela mugitu? Gu ez gara mugitu gauza simple batengatik, gure iritzia beti izan delako bosgarren edukiontzia onartzea. Ikusirik zer pentsatzen duten Tolosarrek, ikusi dugu nola Tolosa Txukun zenbat sinadura dituen. Zergaitik aldatu behar dugu guk? Gehiengoaren iritzia hori da, sinatuta dago. Hori da gehiengoaren iritzia. Zergaitik aldatu bahar dugu? Ez dut inolako arrazoirik ikusten. Por lo tanto, una vez más seguiremos apostando por el quinto contenedor, como así es el deseo de la mayoría de los ciudadanos de Tolosa. No tengo mucho más que comentar y, con el discurso del miedo, desde luego cuando las cosas quedan por escrito se leen y no hay nada que responder.”

- ... Olatz Peon Ormazabal, EAJ/PNV: “Bi komentario: Pixoihal kontuarekin; tontakeri bat dirudi, baina nik badakit hori ez dela horrela. Kaleko jende asko inguratu zaigu gai honekin. Jendeari ardura asko sortzen dio. Pixoihalak jaso daitezke errefusarekin egunero. Ni perdidakin hasten naizenen Udaletxera etorri behar dut txartelaren bila? Edo ni hilekoarekin nagoenean? Atez ateko sistema jarrita dagoen hainbat herrietan pertsona askok dituzte arazoak. Gaurko errealitatean hori da. Beste gauza bat, niri iruditzen zait kontua ez dela adostasun politiko batera iristea kontu honi irtenbide bat emateko. Nik politika beti ulertu dut herrigintza bezala. Herriari entzun behar zaio. Herrigintzaz ari gara eta iruditzen zait inportantea dela hori azpimarratzea. Fiskalitatea erabakiorra iruditzen zait. Proposamen bat ekartzea fiskalitatekerik gabe? Erabat ados nago PSEE-PSOeko zinegotziak egiten duen apreziazioarekin.”
- ... Lore Agirre Zipitria, Bildu: “Niri dagokit sistemaren atal ekonomikoa jorratzea. Aipatu duzuen bezala Hondakinen Mahaian eta Ingurumen batzordean tratatuak izan dira teknikarien txostenak. Nik ez nituzke gure udal teknikarien txostenak zalantzan jarriko, ezta azpibalaratuko ere. Mankomunitateko teknikariak egin du txosten ekonomikoa, eta hau oinarritzat hartuta, Kontuhartzaileak beste bat egin du. Teknikari hauen arabera, eta ikusi duzuen bezala, 2014. urtean 238.962 euroetako inbetsioa suposatuko du sistema aldaketa honek. Aurreikuspen hau goitik botata da, azken batean oraindik ez dakigulako sortzaile bereziak zer motatako edo zer tamainako edukiontzia behar dituen eta zenbat. Guzti horri aurre egiteko 2014ko aurrekontuetan 250.000 euro aurreikusi ziren. Beraz, alde horretatik ez dago inolako arazorik. Ez dakit zer adierazi nahi den fiskalitatearekin? Bi gauza nahasten ari zarete; Mankomunitatearen fiskalitatea eta Udalaren fiskalitatea. Momentuz onartu da Mankomunitateko fiskalitatea. Udaleko fiskalitateari dagokionez, ez dakit nondik atera diren datu horiek, zer egia da Ogasun batzordeetan, aurrekontuak tratatu ditugunean, aipatu izan da herritarrok etxebizitzako 92 euro ordaintzen ditugula. Bikoizte hori ez dakit nondik etorri den, momentuz, Mankomunitateari egiten diogun ekarpenarekin topetan dagoela, etxebizita bakoitzak 140 euro ordaindu beharko lituzke (92 eta 140 arteko diferentzia Udalak ordaintzen ditu). Antzekotasunak daude zuek gobernatzen dituzuen herritan; Aian, Elgoibarren,

Hondarribin...169 eurotan daude. Aipatu nahi nuen sistema aldatzeak birziklatze tasak areagotzen baditu, Mankomunitateari egin beharreko ekarpena ere txikiago izango dela. Sistema aldateta honekin tratamendu gastuak aurreikusten dira %45 baino gehiago jeistea, azken batean orain milaka tona ari garelako bidaltzen errefusara, 142 euro tonako ordainduz eta organikoak, aldiz, 70 euro. %45 hori jaitziko da tratamendu gastuan, kontutan izan gabe gehiago sailkatuta, diru sarrera gehiago izango dituela Udalak: hortaz dexente jeitsiko zaigu Mankomunitateari egin beharreko ekarpena.

Lehenengo kalkuluen arabera eta oso ginetik, azkenean zuek erabaki duzue eta arrazoi horregatik soilik inbertsioaren zenbatekoak eman dira, zer askoz ere magnitude handiko bilketa eredia antolatu behar da eta hori mankomunitateari dagokio, baina lehenengo zenbakien arabera, 2015. urtean, 280.000 euro aurrezteka suposatuko lioke Udalarari. Ekarpene txikiagoa izango da 280.000 eurotan eta hori sistema honek ahalbidetzen digu printzipioz %60 birziklatzea, beraz, sistema aldatetak suposatzen digun 2014ko inbertsio hau lehenengo urtean berreskuratuko genuke eta, gainera, datozen urteetatik aurrera edukiko genituzke beste 280.000 euro bestelako inbertsioetan edo Tolosan bestelako beharretara bideratzeko. Ez dakit nola jarri dezakezuen zalantzan gure kudeaketa eredia aurrera eraman ditugun proiektuetan eta ekimenetan, beti herritarrak izan ditugulako kontutan. Hor aipatu duzu (Olatz Peón zinegotziari zuzenduz) ez dakit zer zenbateko enpleguari zuzendutakoa. Ahaztu zaizue krisiari aurre egiteko plangintzan, aurrekontuetan, 900.000 euro jarri genituela, nahiz eta udalaren eskuduntza ez izan enpleguari dagokion atal hori, Eusko Jauriaritzarena baizik. Zuen kudeaketaren ondorioz enpresa haundien eta gizon dirudunen interesaren alde aritu zareten bezala, gaurko albistea da 30.000.000 eurotako isuna ordaindu behar dugula herritarrok opor fiskalak direla eta. Zuen kudeaketaren ondorioz, 2011. urtean, Udal gobernuaren aldateta eman zenean, 26.000.000 eurotako zorrarekin aurkitu genuen Udala, Udal aurrekontu desorekatu batekin eta, behin eta berriro aipatu den bezala eta demostratuta gelditu den bezala, beste kudeaketa bat egiteko modua daukagulako, gastu eta sarreraren kontrol zehatza berreskuratu da eta aurrekontua orekatu. Zuek utzitako 26.000.000 eurotako zorra erdira jaitzi da hiru urte igaro baino lehen. Hortaz, esan dezakegu gaur egun ekonomikoki osasuntsu dagoela Udala gure kudeaketa ereduaren ondorioz: beraz, gure ibilbide guzti hau ikusirik, Tolosara egokitutako edukiontzi bidezko sistema berri hau bideragarria da aipatu ditudan kontuengatik. Ginetik botata, tratamenduen gastua gutxienez %45era jaitziko delako eta horrek suposatzen duelako 280.000 euro gutxienez merkeagoa izatea Mankomunitateari egin beharreko ekarpena.”

... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea: “Datu ekonomikoak inportanteak dira Udaletxe baterako, non diru sarrerak geroz eta mugatuak direnean. Gure eztabaida mugatu egingo da eta eragileei emango diet hitza. Baina esan nahiko nuke baliabideen kudeaketaz ari garela hitz egiten. Ez ditzagun hondakinak ikusi, poltsa hartu bota eta desagertuko balitz bezala; baliabideak dira. Baliabideak bezala efizientziaz kudeatzen ditugu, orain arte egin ez den bezala. Garaiak aldatu egin dira eta garaiak aldatu egin diren bezala gu ere aldatzen joateko garaia da. Duela 30 urte hondakinak leihotik botatzen ziren Oriai ibaiara. Gaur egun gizartea aldatzen doa eta, aldatzen doan neurrian, Administrazioak ere aldateta neurri horiek hartu behar ditu, gauzak hobetzen joan ahal izateko. Argi daukagu erantzukizun bat daukagula, ba bete dezagun!”

Publikotik parte hartzeak izan dira. Hauek DVDan jaso dira.

**1.-Tolosa Txukun-ek aurkeztutako mozioa, Tolosan Hondakinaren bilketari buruzkoa.**

**1.-Moción sobre la Recogida de Residuos en Tolosa, presentada por Tolosa**

### Txukun.

“La plataforma ciudadana, a favor de la recogida selectiva a través de contenedores y en contra del PaP, TOLOSA TXUKUN, encuentra inadecuada la propuesta que el Ayuntamiento de Tolosa propone para la recogida de basuras, ya que no da respuesta a los mínimos exigidos por la plataforma: “recogida selectiva a través de contenedores”.

Vemos en esta solución más un intento por gestionar el conflicto social creado en torno a la recogida de basuras, que en solucionar el verdadero problema de la gestión de residuos.

Tolosa Txukun recuerda al gobierno de Tolosa dos conceptos básicos a la hora de implantar el sistema de recogida de residuos. Por un lado, las tres erres de la gestión de residuos: reducir, reutilizar y reciclar. Y, por otro lado, una premisa ampliamente aceptada en Europa, la AGENDA 21, que dice: “Toda gestión debe ser ecológica, económica y socialmente sostenible.”

Para la conjunción de estos dos conceptos vemos demasiadas lagunas e imprecisiones en el modelo presentado por el Ayuntamiento de Tolosa.

- Por qué no empezar a recoger el orgánico inmediatamente en los lugares donde la infraestructura existente así lo permita?
- Por qué no se aprovechan los contenedores existentes para recoger el orgánico y el rechazo?
- La facilidad para depositar cada fracción favorece el incremento de la tasa de recogida selectiva, por lo que no entendemos la restricción del contenedor marrón a unos días concretos.
- Aunque la privacidad queda parcialmente garantizada con este sistema, el excesivo control del rechazo plantea nuevos problemas sobre la basura que un amplio sector de la población genera (compresas, pañales...).
- La utilización masiva de contenedores pequeños requiere la compra de camiones específicos de recogida, con la consiguiente venta de los actuales, tal como aparecía en el informe de GARBITANIA, para la implantación del PaP.
- La supeditación de la implantación del PaP en Tolosa a los resultados obtenidos a través de los contenedores no podemos considerarla aceptable, ya que ni este Ayuntamiento ni su representante en la mancomunidad de basuras han facilitado información alguna requerida por la plataforma TOLOSA TXUKUN. Sin datos contrastables no hay compromiso.

Por tanto, nos ratificamos en que la mejor opción para el sistema de recogida de residuos de Tolosa es el 5º contenedor.

Por último, recordar al gobierno del ayuntamiento de Tolosa que igual que justificaba la imposición del sistema de PaP con los votos que avalaron en su programa electoral, también venía en el mismo programa electoral la convocatoria de consultas populares para solucionar conflictos como el que se plantea con las basuras. Le pedimos, pues, que someta a la votación del pueblo el sistema de recogida idóneo para Tolosa.

Por tanto, pedimos al Ayuntamiento de Tolosa que acuerde:

1. Comenzar la recogida del orgánico en los lugares donde la infraestructura existente así lo permita.
2. Aprovechar los contenedores existentes para recoger la fracción orgánica y la fracción resto.
3. Recogida diaria de todas las fracciones.
4. No malgastar los bienes públicos.
5. Información y transparencia en el modelo de sistema de recogida que se quiere implantar en Tolosa.”

Jarraian, Udaltzarak, EAJ/PNV eta PSEE-PSOE alderdien aldeko botoekin eta Bildu eta Aralar alderdien abstentzioarekin, gehingoz, **onartu** du Tolosa Txukun Plataformak aurkeztutako mozioa.

## **2.- Udal Gobernuak aurkeztutako mozioa, Tolosan Hondakinen bilketari buruzkoa.**

## **2.- Moción sobre la Recogida de Residuos en Tolosa, presentada por el equipo de Gobierno.**

Baliabide naturalak geroz eta urriagoak diren mundu batetan bizi gara. Hazkuntza ekonomiko infinitoa eta baliabide natural finitoen arteko tala bat ematen ari da egun, ondorioz geroz eta indar handiagoa hartzen ari dira “aldaketa klimatiko” moduko adierak. XX. mendean gizakiak aurreko milaka urteetan baina gehiago eta basatiago ustiatu ditu baliabide naturalak eta, ondorioz, egun, gure ondorengoen etorkizuna dago jokoan.

Bizi garen kontsumo gizartearen isla da sortzen dugun hondakin kopurua. Horregatik, sortzen dugunaren erantzule izateko ordua iritsi da, legeak hala eskatzen duelako, baina baita, eta batez ere, ondorengoekiko dugun erantzunkizun moralala dela eta.

Gipuzkoako Foru Aldundiak hartutako erabakiaren ondorioz, Gipuzkoak ez du errausgailua izango, ondorioz, hondakin kopuru altu bat, gutxienez %60, birziklatzeko egin beharra dugu udalok. Hori horrela, Tolosako udalak dagokion erantzunkizuna hartu eta herritarrekin batera % hauetara iritsiko den sistema ezartzeko konpromisoa hartzen du.

Ahaztu gabe, hondakin hoberena sortzen ez dena dela, prebentzioan, sorkuntzan hondakin kopuruen gutxitzean, kontzientziazioan, eta berrerabilpenean oinarritutako politikak indartu

behar ditu udalak, hauek biltzerako garaian ahalik eta kopuru txikiena izan dezan. Horren adibide, autokonposta eta auzokonposta dira, ahalik eta hondakin kopuru gehien hasiera hasieratik bilketa eta tratamendu zirkuitotik ateratzea lortzen baidute.

Erantzunkizunetik haratago, hondakina baliabide gisara ulertuta, honek duen balio ekonomikora garamatza. Horrela, geroz eta hondakina berezita gehiago bildu orduan eta tratamendu gastuak gehiago mugatuko dira eta diru sarrerak handitu. Ondorioz, kudeaketaren azken faktura mugatzeaz gain kudeaketa efizienteago batetara eramango du udala . Beraz, hondakinen tratamendu egokiak, kudeaketa efizienteago batetara eramango du udala. Helburu hauek lortzeko, herritarren esku- hartzea nahitaezkoa izango da eta udalak behar diren baliabideak jarri beharko ditu hau gauzatu ahal izateko. Etxe bakoitzak, famili bakoitzaren esku egongo baita etxean ongi bereiztea. Berziklatzearen arduraren beraz, guztiona, heritar guztiona da, udalak baliabideak jarri behar dituelarik hau egin ahal izateko.

Hondakin kudeaketa sistema integral berriaren arrakastarako beraz, herritarren parte hartzea, inplikazioa eta kontzientziak ezinbesteko dira. Gizarte hobea, jasangarriago bat egitea beraz denon eskuetan dago. Hau dena, gauzatu ahal izateko beraz,

Tolosako udalari ondorengo onartzea proposatzen diogu:

**Lehena:** Birziklatzea, denon, herritar guztion egin beharra da, beraz ezin da hautazkoa izan, erantzunkizunez, hondakinak baliabide gisara kudeatu behar ditugu.

**Bigarrena:** Udalak hondakinak edukiontzi bidez bilduko dituen sistema bultzatuko du. Horrela, errefusa eta organikoa modu kontrolatuan biltzea ahalbidetuko du sistemak, edukiontzi bakoitzaren erabilzaile kopuru zehatza izaten. Pixoihoalak eta konpresak, beste edukiontzi baten bidez bilduko dira, modu kontrolatuan ere. Beste frakzioak, egungo edukiontzien bidez bilduko dira. Frakzio guztiak berezita bilduko dira beraz.

**Hirugarrena:** Bilketa sistema honek "hondakin mahaiak" onarturiko birziklapen tasetara iritsi behar du, %60-70 hain zuzen. Horretarako, Udalak, prebentzioa eta berrerabilpenean oinarritutako politikak indartuko ditu ( prebentzio kanpainak, auzokonposta, autokonposta...) Honen denaren jarraipena egiteko, sistema aldiro ikuskatuko da, aurrez jarritako helburuak lortzen ari den ikusteko. Horrela ez balitz, beharrezko hobekuntzak eta aldaketak egingo dira. Horretarako Hondakinen Mahaia urtean 4tan, 3 hilez behin elkartuko da. Sistemaren etengabeko hobekuntza bilakatuko da, ahalik eta birziklatze tasa handienak lortze asmoz.

**Laugarrena:** Sistema berriaren sortzaile handiak diren dendari, ostalari eta elkarte gastronomikoen bilketa sistema berezitua burutuko da. Horrela, sistemak etorkizunean, sortzen denarekiko ordaintzeko aukera ahalbidetu behar du, gehiago sortzen duenak gehiago ordain dezan. SAO (Sorkuntzaren Araberako Ordainketa) edo bestela esanda, fiskalitate ekologikoa aplikatzen.

**Bosgarrena:** Landa auzoetan, autokonposta sustatuko da bereziki eta frakzioak bananduta biltzeko sistema ezarri.

**Seigarrena:** Egun, bilketa sistemaren kostua ez du %100ean herritarrak bere gain hartzen legeak eskatzen duen moduan, horregatik, akordio honen bidez, ondorengo 5 urteetan hondakin bilketa sistemaren kostua zerbitzuaren onuradunek bere gain hartzeko konpromisoa hartzen da.

Jarraian, puntuz puntu bozkatu da:

Lenehengo puntua: Denak alde egonik, aho batez onartu da.

Bigarren puntua: Aralar eta Bildu alderdien aldeko botoekin eta EAJ/PNV eta PSEE-PSOEren kontrako botoekin, gehiengoz, onartu da.

Hirugarren puntua: Aralar eta Bildu alderdien aldeko botoekin, EAJ/PNVren abstentzioarekin eta PSEE-PSOEren aurkako botoekin, gehiengoz, onartu da.

Laugarren puntua: Bildu eta Aralar alderdiko aldeko botoekin eta EAJ/PNV eta PSEE-PSOE alderdiaren abstentzioarekin, gehiengoz, onartu da.

Bostgarren puntua: Bildu eta Aralar alderdiko aldeko botoekin eta EAJ/PNV eta PSEE-PSOE alderdiaren abstentzioarekin, gehiengoz, onartu da.

Seigarren puntua: Bildu eta Aralar alderdiko aldeko botoekin eta EAJ/PNV eta PSEE-PSOE alderdiaren kontrako botoekin, gehiengoz, onartu da.

### **3.-Tolosako hondakinen bilketa sistemaren aldaketa onartzea.**

### **3.- Aprobación de la modificación del sistema de recogida de residuos en Tolosa.**

Hiri hondakinen kudeaketaren gaiak berebiziko garrantzia hartu du azkenaldian. Alde batetik, Europar Batasunak ezarritako 1999/31/CEko Zuzentarauak zabortegetara bideratzen den materia organikoa gutxitzeko helburuak finkatzen ditu eta tratamendurik jasan gabeko hondakinak zabortegetara bideratzea eragozten du. Hondakinen eta kutsatutako lurren 2008/98/CE Zuzentarauak, berriz, hondakinen kudeaketan hierarkia zein izan behar duen finkatzen du; murrizketa, berrerabilpena, birziklatzea, balorizazioa eta azken aukera bezala ezabatzea aurreikusten du. Beste alde batetik, Gipuzkoako Hondakinen Planaren Aurrerapen Dokumentuaren Garapenerako Estrategian (2008 – 2016), 2016rako, gaikako bilketan % 60ra iristea ezartzen da helburutzat, udalerrri edota mankomunitate bakoitzean.

Tolosarekin batera mankomunitatea osatzen duten herri gehienetan hondakinen bilketa sistema aldatu da, sailkatze maila horietara iristeko helburuarekin. Tolosan gaur egun birziklatze tasa %35aren azpitik dago eta materia organikoa gaika biltzeko aukerarik ez dago. Hori dela eta, Tolosan hondakinen bilketa sistema aldatzea beharrezkoa da eta horretarako pausu hauek eman dira:



- Hondakinen gaia lantzeko Tolosako udalak Hondakinen Mahaia sortu zuen 2012ko martxoan. Lehen fase honetan (2012ko martxotik 2012ko ekainera bitarte) gaiari buruzko informazio teknikoa bildu eta elkarbanatu zen, eremu desberdinetako teknikoak gonbidatuz.
- 2012ko uztailaren 24ean, Tolosako udalak hiri-hondakinen kudeaketari buruzko mozio bat onartu zuen, bertan adierazten zen azterketa bat enkargatuko zela udalerrian ezar zitekeen hondakinen bilketa-eredua aukeratzen laguntzeko.
- 2013ko urtarrilaren 9an, Hondakinen Jarraipen Batzordea sortu zen. Bertan, alderdi politikoez gain, Tolosa Txukun eta Tolosa Zero Zabor taldeak deituak izan ziren herrian zeuden bi sentsibilitate nagusien ordezkari gisa. Batzorde honen zeregin nagusietako bat hau izan da: Tolosako udalerrian hondakinak gaika bilduko dituen ereduari buruzko azterketa egiteko kontuan hartu behar diren gutxieneko aldagaiak zehaztea eta prozesuaren jarraipena egitea.
- Horrela, 2013ko martxoaren 4ean Hondakinen Jarraipen Batzordeak, Bildu, Aralar, EAJ, Tolosa Zero Zabor eta Tolosa Txukunen aldeko botoekin eta PSEren kontrako botoarekin, azterketa kontratatuzko pleguen oinarri izango ziren puntu hauek onartu zituen:

“1- Hiri-hondakinen sorkuntza ahalik eta gehien gutxitzea

2- Gaika ahalik eta zatirik handiena biltzea: ezartzeko momentuan sistemak helburu bezala izango du % 60-70 bitarteko gaikako bilketa eta bi urteren epean % 75-80ra iristeko aukera eman behar du.

3- Gaika bildutakoa kalitate onekoa izatea

4- Errefusa ahalik eta gehien minimizatzea.

5- Ereduak Tolosako udalerriko auzoen izaera eta nortasuna oso kontuan hartzea: udalerraren hedadura, kasu egin beharreko biztanleak, hirigintza-tipologia, biztanle-dentsitatea, egungo azpiegiturak eta baliabideak berrerabiltzea, inpaktu ekonomikoa, garraioa eta bestelako jasangarritasun-faktoreak, bilketa-sistemetan eta ohituretan aldaketak sartzeko udalerrri mailan egon litezkeen aurkako edo aldeko jarrerak, gizarteratze-ahalegina, etab.

6- Jasangarritasunerako bestelako faktoreak kontuan hartzea: bititza-zikloa, CO2 emisioak, etab.

7- Gaikako bilketa herritar guztien ardua eta betebeharra izatea.

8- Gaur eguneko egoera, bilketa maila, azpiegiturak eta herritarren ohiturak kontutan izango ditu.”

- Hondakinen bilketa sistemen azterketa egiteko lehiaketa irekiaren irabazlea IDEMA enpresa izan zen. Azterketak 4 fase izan zituen. Hasiera batean 5 bilketa eredu aurkeztu zituen eta Hondakinen Jarraipen Batzordeak eskatuta hiru sistemen azterketa sakonagoa egin zuen: derrigorrezko edukiontzien sistema, atez-atekoa eta komunitarioa.

Hondakinen Jarraipen Batzordearen baitan ezin izan da sistema hauetako bat adostasunez onartu, hori dela eta udal gobernu taldeak orain arte landutakoa eta adostutakoa kontuan hartuz

bilketa sistema berri bat proposatu du. Sistema berri honetan Idemak aztertutako azken hiru sistemen ezaugarri batzuk hartzen dira kontuan, ahalik eta adostasun maila altuenera iristeko asmoarekin.

Sistema berriaren ezaugarri nagusiak hauek dira:

- Gaur egungo guneak osatu eta beste batzuk gehituko dira 60 puntu arte (ontzi arinak, beira eta papera eta kartoiarentzat), beste edukiontzi bat (240 L) jarriko da pixoihal eta konpresentzat, itxitura sistemarekin, erabiltzaileak egunero ireki ahal izango du bere edukiontzia eta egungo edukiontzi berdeak (era guztietako hondakinak pilatzen dutenak) kenduko dira.
- Frakzio organikoarentzat, hirian zehar banatuta, 150 pertsonentzako edukiontzi bat jarriko da (240 L) – asteen 3tan atera ahal izango da organikoa – txartel bidez ireki ahal izango du erabiltzaile bakoitzak bere edukiontzia. Bestalde, autokonposta zein auzokonposta sustatzen jarraituko da.
- Errefusarentzat, hirian zehar banatuta, 150 pertsonentzako edukiontzi bat jarriko da (240 L) – asteen behin atera ahal izango da errefusa – txartel bidez ireki ahal izango du erabiltzaile bakoitzak bere edukiontzia
- Sortzaile Bereziak: Bilketa independentea eta indibidualizatua izango da. Zuzenean eurengandik jasotako informazioarekin, egutegi bat osatuko da eta honen arabera hondakinak gaika bilduko dira. Ontzi arinak eta papera kaleko edukiontzietara eraman beharko dituzte.
- Landa Eremuak: Materia organikoa kudeatzeko, autokonpostajea sustatuko da. Bideetan zehar banatutako edukiontzi berdeak kenduko dira eta gaika biltzeko edukiontziz osatutako bateriak indartuko dira.

Hiru txosten aztertu dira:

1.-Ingurumen Teknikariarena, (2014/04/23) bertan gai honi buruz eraman den prozesuari buruz eta gaiari buruz egindako azterketak azaltzen dira. Txosten honetan ere proposatzen den sistema berriaren ezaugarriak aipatzen dira eta espero diren emaitzen eta lortuko diren helburuen justifikazioa egiten da.

2.- Mankomunitateko Teknikariaren txostena (2014/05/07)-ko datarekin, non sistema martxan jartzeko udalak egin beharrezko inbertsioak aurreikusten diren. Mankomunitateko teknikariak batzordean azaldu zuenez, sistema honen ezartzeak udalak mankomunitateari egin beharreko ekarpena jaitsi araziko du, gehienbat zaborte-gira bideratutako hondakin kopurua murriztuko delako.

3.- Kontuhartzaitzaren txostena. (2014/05/07)-ko datarekin. Sistema martxan jartzeko 2014ko aurrekontuei inputatu behar zaien zenbatekoa 238.963€-koa da. Txosten honetan 2014ko aurrekontuetan inbertsio hauetarako kreditua dagoela baieztatzen da.

Hortaz, gaia azterturik eta Ingurumena, Garapen Ekonomikoa, Merkataritzaa eta Turismoa batzordeak 2014ko maiatzaren 8an egindako batzorderekin bat etorritik, Bildu eta Aralar

alderdien aldeko botoekin eta EAJ/PNV eta PSEE-PSOE alderdien kontrako botoarekin, Udaltzakoak, gehiengoz,

### ERABAKI DU:

**Lehenen.-** Hondakinen bilketa sistema aldatzea, aurreko atalean deskribatzen den moduan.

**Bigarren.-** Tolosaldeko Mankomunitateari eskatzea hondakin bilketa aipatutako sistemaren bidez egitea, bilketako kontzesiodunaren kontratuan behar diren aldaketak egin ondoren.

**Hirugarren.-** Sistema berriari ekiteko behar diren edukiontzi eta jarraipenerako sistemak erosteko espedienteak hastea.

**Laugarren.-** Erabakiaren berri Kontuhartzailletza departamentuari, Hirigintza departamentuari, Obra eta Zerbitzu departamentuari, Ingurumen departamentuari eta Tolosaldeko Mankomunitateari ematea.

... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea: *"Eskerrak eman nahiko nizkizueke denoi bi ordu luzaroan egon zaretelako adi-adi eta, batez ere, errespetuz hitz egin delako eta batak bestearen iritzia errespetatu duelako. Herri askotan lotsagarria diren gauzak gertatu izan dira. Hemen ez dira gertatu, beraz, eskerrik asko eta zorionak! Bidea egiteke daukagu eta bidean elkar ikusiko gara. Hemen planteatzen dugun sistema honetan, edozein sistemetan, helburuetara iristeko denon etxeetan bereizten hastea delako gatazka honen irtenbidea. Mila esker."*

Besterik gabe, arratsaldeko bederatzi t´erdietan Sin más asuntos que tratar, siendo las nueve y bilera bukatutzat eman da, eta guztia nik, media de la tarde, se da por finalizada la sesión, de Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut. todo lo cual yo, el Secretario, certifico.

ALKATEA

IDAZKARIA